



**AAC CENTRO DE ACÚSTICA APLICADA**  
Ingeniería + Laboratorio

Parque Tecnológico de Álava  
01510 MIÑANO (VITORIA-GASTEIZ)  
Tf. 945 29 82 33 Fx. 945 29 82 61

[aac@aacacustica.com](mailto:aac@aacacustica.com) - [www.aacacustica.com](http://www.aacacustica.com)

Razón social: AAC Centro de Acústica Aplicada SL

TXOSTEN TEKNIKOA

**LEZOKO ZARATAREN EKINTZA-PLANAREN INFORMAZIO PUBLIKOAREN IZAPIDEAN  
AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEN IDAZKIA**

dok.: 190505	MTG/ABI	data: 19.10.17	3. orrialdea 8tik
--------------	---------	----------------	-------------------

Bezeroa: **LEZOKO UDALA**

Eskatzaile: Leire Beteta Merino

1.- **XEDEA**

AAC-k egindako eta informazio publikoan aurkitu daitekeen Lezoko zarataren ekintza-planari dagozkion Lezoko udalako biztanleek aurkeztutako alegazioei erantzuteko idazkia egitea.

## 2.- EKINTZA-PLANARI DAGOZKION AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Lezoko zarataren ekintza-planari dagozkion behin-behineko agiriak Alkatetzaren D19/0469 zenbakiko Dekretuaren bitartez onetsi zen, eta horrela argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko maiatzaren 31an. Ondoren, esposizio publikoan egon zen 1 hilabetez, eta denbora horretan honako alegazio hauek jaso ziren:

- 2019ko uztailaren 23an Ana Menasalvas Nieves andreak aurkeztutako alegazioa
- Joxe Luix Agirretzek, M<sup>a</sup> Carmen Clementek, Álvaro, Agustina Pontestak eta Jesús Mari Otxoak 2019ko abuztuaren 09an aurkeztutako alegazioak

## 3.- ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Ondoren aurkeztutako alegazioen iruzkinak eta argitasunak aurkezten dira:

### 3.1. **2019ko uztailaren 23an Ana Menasalvas Nieves andreak aurkeztutako alegazioa**

Laburbilduz, aipatutako idazkian honako hau eskatzen da:

1. Aralar kalearen ondoko parkeko hormaren islapena murrizteko neurriak eskatzen dira, aipatutako hormak errepidearen zarata anplifikatzen baitu

Aipatutako guztia erantzuteko, honako argitasun hauek ematen dira:

1. Zarata-mapan ez zen arazo akustikorik identifikatu aipatutako bidean; hori dela eta, ekintza-planean ez da neurri zuzentzailerik proposatu, eta arazo larriagoak dauzkaten egoeretara bideratuta daude. Horregatik, ekintza hau ez da lehentasun gisa hartzen. Hala ere, alegazioan aipatutakoa etorkizuneko plan akustikoak egiterakoan kontuan hartuko da. Beraz, alegazioa partzialki onartzen da.

### 3.2. **Joxe Luix Agirretzek, M<sup>a</sup> Carmen Clementek, Álvaro, Agustina Pontestak eta Jesús Mari Otxoak 2019ko abuztuaren 09an aurkeztutako alegazioak**

Aipatutako idazkian zenbait alegazio egiten dira, baita alegaziotzat hartzen diren iruzkinak ere.

Ondoren alegazioak laburtuko dira alde batetik, eta bestetik, ordea, iruzkinak:

Alegazioak:

1. Lezoko Udalak zarata-arazoak daudela badaki, baina ez die konponbiderik bilatzen. Ez ditu auzokideen kexak eta eskaerak kontuan izaten. Halaber, zarataren ekintza-plana ez dago ikertutako benetako datu eta ondorioetan oinarrituta, baizik eta balioespenetan. Gainera, ez du egungo egoera islatzen, 2015tik gaur egunera arte portua dela eta sortutako kutsadura akustikoa nabari handiagotu baita.
2. Zenbait neurri proposatzen dira:
  - a. Lezoko Udalak portuaren eremuan dauden enpresa guztien jarduera-lizentziak eskatzea, eta lizentziarik ez dutenen enpresei jarduera gelditzea agintzea, legea betetzen ez baitute.
  - b. Lezoko 1., 2. eta 3. kaltetan osagarri zaratatsuak dituzten motordun itsasontziak porturatzea debekatzea. Hala ere, bertan porturatzen badira, elektrizitate harguneak jarri beharko lirateke errekontzako motorrak saihesteko.
  - c. ETS-k errailak ureztatzeko erabiltzen duen sistema finkoa portuaren errailetan ere jartzea.
  - d. Portu-agintaritzari Lezoko kaltetan diesel-garabi eta makineria zaratatsurik ez erabiltzea eskatzea, eta hala ere erabiltzen baditu, erabiltzerakoan beharrezkoa den distantzia mantentzea.
  - e. Portu-agintaritzari atseden-orduak eta jaiegunak errespetatzea eskatzea.
  - f. GI-636, GI-3440 eta GI-2638 errepideen bidez udala etengabe zeharkatzen duen trafiko astunak eragindako zaratari konponbidea bilatzea.
3. Andreone liburutegian, kultur etxerik garrantzitsuenetarikoa, irakurtzeko beharrezkoa den isiltasuna ez dagoela diote. Jarraipena egiteko helburuarekin, jarraiko miaketak egitea proposatzen da.
4. Neurri zuzentzaileen etengabeko jarraipena bermatzea eskatzen da.
5. «Deskribapena» atalean. Portuaren esparruan egunez (ez da gaua aipatzen), solteko hustuketak, txatarra, itsasontzien motoreen zarata edo kamioien ibileren zarata.
6. Kaltetutako biztanleriaren tauletan ez da portua aipatzen. Neurriak 2005eko eta 2015eko txostenetan oinarritzeagatik jadanik funtzionatzen ez direla diote, 2019. urtean gaudelako eta egoera okerragotu delako, trafikoa, Lezoko kaltetako jarduerak eta auto, txatarra, solteko eta profilen zamalanak handitu baitira.

7. BABZ-identifikazio atalari buruz, honako hau diote: Andreone udal-liburutegia BABZ 3 zein BABZ 4 eremuan egon liteke, errepidearen nahiz portuaren eragina baitu. Gainera, «e» motako eremuan egon beharko liteke, erabilera kulturala baitauka.
8. «Prebentzioa». GI-2638 errepidearen ondoan eraikiko diren eraikin berrien fatxadak errepideari begira ez egitea aholkatzen da, eta hala ere horrela egiten badira, errepidearen aldean bainugelak, sukaldeak eta egongelak kokatzea gomendatzen da, eremu horretan OCA 10 dB(A)-tan gainditzen baitira. Nahiz eta arazoa GI-2638 errepideko trafikoa eragiten duela jakin, ez da zarataren iturria, hau da, trafikoa murrizteko neurririk proposatu.
9. Berrero hainbat eremu zaratatsu «eremu lasai» gisa ezartzen direla adierazten dute.
10. Planak pantaila berdeen kokapena barne hartzen ez duela adierazten da, eta Udalaren politika «zuhaitz-hiltzailea» amaitzea eskatzen da. Gainera, errepide eta zarata-iturrien inguruak heskai eta landareekin basotzea prebentzio-neurri bat izan litekeela ere adierazten da, diotenez, «jakina da» landareak, zuhaitzak edo heskaiek kutsapen akustikoari aurre egiten laguntzen dutela, pantailen modura zarataren hedapena galarazten baitute.
11. «Pasaiaiko Portuko neurri zuzentzaileei» buruz, berriz, tren, portu eta industriak eragindako zaratak ez direla sakonki aztertu adierazten da. Haien iritziz, urtean 2 bilera baino gehiago egin beharko lirateke aipatutako arazoak konpontzeko. Gainera, mahai hau aspalditik eraginkorra ez dela diote, urtez urte arazoak murriztearen ordez handitzen ari baitira.
12. Oro har trafikoa zarata-iturri gisa murrizteko neurririk azaltzen ez dela diote, planak proposatutako neurriak adabakiak besterik ez baitira, gero eta handiagoa den trafikoa eragindako arazoak konpontzen ez dituztelako. Haien iritziz, arazoaren jatorria bilatu behar da, hau da, garraio-sistema, alegia: partikularra, motorizatua, kutsatzailea, pertsonak zein merkantziak mugiarazten dituen, baliabide ugari kontsumitzen dituen eta Lurraren nahiz pertsonen osasunerako kaltegarria dena.

#### Iruzkinak

1. Udalak zarata murrizteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko martxan jarri dituen neurriei buruz honako hau diote:
  - a. «Kudeaketa-neurriei» buruz: instituzio-mahaiak ez du zarataren murrizketa sustatzen eta gero eta okerrago daude.
  - b. «Zarata kontrolatzeko eta murrizteko neurriei» buruz: bidegorriaren zati bat bakarrik egin denez, «trafikoa arindu» ez dela diote. Oinezkoen pasabideetan oro har zarata murriztu ez dela adierazten dute, zarata-iturrien eragina ez baitute. Lezoko errepideetan autoak abiadura handiarekin doazela eta semaforoek autoei

lehentasuna ematen dietela pasatze-denbora kontuan hartuz diote. Gainera, oinezkoen kaleak trafikoz beterik daude.

2. «Kudeaketa eraginkorra» atalari buruz, helburu zehatzak: Udalak kudeatzen ez dituen zarata-iturrien eragin akustikoa murriztea. Jarduketak: iturrien kudeatzaile arduradunen laguntza eskatzea; haien iritziz, Ingurumen Sailak ez die egindako eskaerei erantzun positiborik eman.
3. «Bideko trafiko eta mugikortasunari buruzko neurriak». «Lezoko bideko trafikoak sortutako zaratak ez du eraginik biztanleetan udala zeharkatzen duten bide nagusiak aldundiaren ardura direlako». Aldundiaren ardura diren errepideak eragindako zarata, nahiz eta horien maila altua izan, haietan eragina baduten galdetzen dute.
4. «Bide horietan egiten diren legez kontrako lehiaketei» buruz: «Legezko lehiaketa» asko egiten direla adierazten dute, eta Jaizkibeleko Rallya dela eta urtean zehar motor-zarata «izugarriak» entzuten direla diote. Diotenez, motoren zaratak haran osoan zehar hedatzen dira, udala zeharkatzen dute eta Jaizkibeleko (Natura 2000 dena) habitat eta espezieei kalte egiten diete.
5. «Hobetzeko helburua» atalari buruz: «Kutsadura akustikoa murrizteko neurriak: Lezoko saihesbidea egitea eskatzea». Haien iritziz, errepide gehiago eginez arazoa handitu besterik ez da egiten. Ingurumenari kalte egiteaz gain, lurra artifizialagoa bilakatzen da eta trafikoak eragindako zarata handitzen da. Errenteriako saihesbide edo Lezoko Autobia dela eta Gaintzurizketako errepidearen trafikoak handitu da, eta N-I errepidearen saihesbide gisa funtzionatzen duenez, Irunera doazen auto eta kamioi askok Lezo zeharkatzen duten errepideak aukeratzen dituzte. Jadanik nahikoa azpiegitura daude berririk egin behar gabe.
6. «Pasaiako portuko eragin akustikoa murriztea». Haien iritziz, ez dira portuarekin egindako bileretan proposatutako neurriak betetzen: Hustuketek, autoak garraiatzeko trenak eta itsasontzien motorek zarata handia egiten dute. Portuak kasurik egiten ez badu neurri horiek nork beteko dituen galdetzen dute. Zer egingo du Udalak? Zein instituzio arduratu behar da? Lezoko akustika hobetzeko planek ez dute horri buruz ezer esaten? Haien ikuspuntutik, portuak urte luzez kalte egin dio Lezori zigorgabetasun osoz. Irabaziak eta merkantziak biztanleen bizi-kalitatea baino gehiago aintzat hartzen dira. Bi alderdiak balioetsiz, portuak jarduera kutsatzaileak amaitzea espero dute.

Aipatutako guztia erantzuteko, honako argitasun hauek ematen dira:

Alegazioak:

1. Zarata-mapa benetako trafiko-ezaugarriei buruzko neurketa eta datuetan oinarritutako balioztapenetan funtsatuz egiten denez, egin den unearen egoera akustikoa islatzen du. Nazioartean onartutako eta egiaztatutako metodologia da, eta legeriak horrela adierazten du.

Ekintza-plana egindako zarata-mapan oinarrituz egin da, eta prozesu luze baten emaitza denez, aipatutako plana onartu zen uneko egoera akustikoa zarata-mapa egin zen unekoarenarekiko pixka bat ezberdina izatea izan liteke. Hori dela eta, araudiak jadanik zarata-mapa zein ekintza-plana 5 urteko gehienezko epean eguneratu behar direla adierazten du. Horregatik, hurrengo zarata-mapa egiten den unean momentu horretako egoera akustikoa kontuan hartuko da. Hala ere, zarata-mapak egungo eragina islatzen ez badu ere, Udalak portu-agintaritzari dagoen egoerari buruz une oro jakinarazten dio.

2. Aipatutako neurriei dagokionez,
  - a. duela denbora gutxi Udalak portuan jarduten duten enpresei jarduera-lizentzia izapidetzeko eskatu zien. Horien artean enpresa bakar batek egin du. Gaur egun kontu horiek tratatzeko kontsulta juridikoak daude Estatuaren portuen mailan.
  - b. Jadanik hainbat aukeratan eskatu zaio portuari
  - c. Portuak errailen ureztatze-eremua handitu du.
  - d. Jadanik hainbat aukeratan eskatu zaio portuari
  - e. Jadanik hainbat aukeratan eskatu zaio portuari
  - f. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatuko zaio

Beraz, alegazioa partzialki onartzen da.

3. Ekintza-planean portuari Lezo 2 eta Lezo 3 kaltetan aldizkako neurketa akustikoak egitea eskatuko zaiola adierazten da. Hala ere, Udalak jarraiko miaketak egiteko aukera aztertzen ari da, alegazio honetan eskatzen den moduan. Beraz, alegazioa partzialki onartzen da.
4. Eskatuko da. Beraz, alegazioa partzialki onartzen da.
5. Zarata-mapa egiteko zenbait egunez jarraiko neurketak egin ziren bi fatxadetan. Ez zen gau-zaratarik antzeman. Hala ere, portuaren aurrean dagoen bizitegi-zonan proposatutako BABZ-erako definizioa egiteko azken urtez jasotako kexak kontuan hartu dira, eta dagokion plan zonala mugatzen denean zehazki aztertuko dira. Beraz, alegazioa partzialki onartzen da.
6. Kaltetutako biztanleriaren taulan portuaren eragina industria-zarataren eraginak barne hartzen du. Bestalde, eragina portuan zenbait egunez une ezberdinetan egindako neurketetan oinarrituta dago.  
Neurketei dagokienez, jadanik adierazi denez ekintza-plana zarata-mapan oinarritzen da, eta azken hori 5 urtetan behin eguneratu behar da, eta zarata-mapak une horretako gaitza islatzen du.

7. BABZ-en mugaketa horien geroko kudeaketa kontuan izanez egin da, eta ez horietako bakoitzean eragina duten iturriak bakarrik aintzakotzat hartuz. Nahiz eta dagokion plan zonala garatzen denean liburutegia BABZ 4 eremuan egon, horri eragiten dioten iturri guztiak kontuan hartuko dira. Bestalde, zonifikazio akustikoa, udaleko eremu akustiko ezberdinak zehazten dituen, 213/2012 zenbakiko Dekretuan ezarritako irizpideetan oinarrituz antolatu da. Hori dela eta, alegazio hau ezetsi egiten da.
8. Ekintza-planak sustatzaileei eskatu ahal zaizkien prebentziozko neurriak proposatzen dira. Errepidearen eragina murrizteko neurriak 5. lerroan azaltzen dira. Alegazioa ezetsi egiten da.
9. Eremu lasaiak zarata-mailen arabera ezartzen dira. Maila jakin batzuk baino zarata-maila baxuagoak dituzten eremu guztiak identifikatu dira.  
Zarata-mapa egiterakoan, bideko trafiko, tren-trafiko eta portu- eta industria-jarduerari dagozkien zarata-iturriak bakarrik kontuan hartzen dira, eta zarata-mailak iturri horiek aintzakotzat hartuz kalkulatu dira. Hiriko inguruen zarata-maila aldatu dezaketen beste zarata moten kudeaketa (tabernetatik datorren zarata, garbiketa-makineria...) dagokion ordenantzaren bidez egin behar da.  
Alegazioa ezetsi egiten da.
10. Zarataren elementu oztopatzaile gisa, zuhaitz-hosto distantziak 20 metrotik gorako distantziekin erabili daitezke, eta, beraz, ezin da hiri-egoeretan zarata murrizteko erabili, etxebizitzetatik oso hurbil dauden errepideetan. Eragina psikologikoa eta ezkutatzekoa da batik bat. Hori dela eta, ekintza-plan honek ez du barne hartzen. Alegazioa ezetsi egiten da.
11. Pasaiaiko Erakunde arteko Mahaia zein maiztasunekin biltzen den mahaiko kide guztien mende dago. Halere, zarataren arazoaren konponbidea ez da maiztasun horren araberakoa, baizik eta aurrera eramaten diren ekintzen araberakoa. Alegazioa ezetsi egiten da.
12. Ekintza-planak jardun-eremu mugatua dauka. Abiapuntu horretatik hasiz, zarata murrizteko neurriak ezartzen dira. Alegazioan adierazitakoa planteamendu zabalagoa da eta Udalaren jardun-eremua gainditzen du.

### Iruzkinak

1.
  - a. Pasaiaiko Erakunde arteko Mahaia bilera-maiztasunari buruzko erabakia mahaiko kide guztien mende dago. Halere, zarataren arazoaren konponbidea ez da maiztasun horren araberakoa, baizik eta aurrera eramaten diren ekintzen araberakoa.

- b. Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari Lezo-Donibane bidegorriaren lana amaitzea eskatuko dio. Oinezkoentzako guneetako trafikoari dagokionez, iruzkina kontuan hartuko da Udaleko dagokion sailean adierazteko.
2. Udaleko Ingurumeneko sailak lanean jarraituko du zarata egiten duten fokuek udaleko zarata gutxi dezaten.
  3. Zarata iturria kaleetako edo errepideetako trafikoa den desberdintzeko arrazoa honakoa da: Udalak kaleetako trafikoa arautu dezake, baina ezin du ezer egin errepideetako trafikoa erregulatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundia baita edozein ekintzaren erakunde eskuduna. Horrek ez du esan nahi eragiten duten ondoeza ahaztuta geratzen denik edo Ekintza Plana alde batera utziko denik, baizik eta ekintza motak desberdinak direla.
  4. Udala lankidetzan arituko da baimendutako lasterketen antolatzaileekin horiek sortzen duten zarata gutxitzeko, baina kontuan hartu behar da behin-behineko gertaerak direla. Era berean, gai hori kontuan hartuko da Udaleko Zarataren Agindua idaztean.
  5. Lezoko saihebidetaren eginkizun bakarra trafikoa Pasaia Donibanera desbideratzea da, herriaren erditik pasatzen baita orain GI-3440 errepidetik. Hala, Lezon pairatzen duten zarata asko gutxituko litzateke.  
Lezoko saihebidetaren portu-zoruaren gainetik pasatzen den bide-goren gisa egituratu da. Hala, ez dago zoru naturala eraikitzeke beharrik. Zaratak sortzen dituen ondoezei dagokionez, Udalak diseinuan beharrezkoak diren neurri guztiak hartzea eskatuko luke, bide berri horrek kutsadura akustikoaren gune berri bat ekar ez dezan.
  6. Udalak etengabe eskatzen dio Portuari zarata gutxi dezala. Udalaren erantzukizuna da Portuari zarata gutxitzeko neurriak jar dezan eskatzea, auzokoen atsedenen eta Portuan aurrera eramaten den ekintza ekonomikoen arteko oreka aurkitzeko asmoz. Gainera, Udalak zarataren arazoan aurrera egin nahi du Ekintza Plana aurrera eramanez. Horretarako, Agindu bat onartuko da, eta neurketak egingo dira.

Miñano, Vitoria-Gasteiz, goiburuko datan

Alberto Bañuelos Irusta

Mónica Tomás Garrido